

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko otsailaren 6a / 571. zenbakia

SAN BLAS

ASTE
BUKAERAN
JAIK
AURRERA
EGINGO
DUTE
MURINONDON



GIZARTEA: ASPACEK EGUNEKO ZENTRO BERRIA ZABALDUKO DU/5 • KULTURA: ORGANO EMALNALDIA/12



San Martin Agirre
herri eskola

SAN MARTIN ESKOLAN ATEAK ZABALIK

Otsailaren 14an 16:30etik 19:30era

EGITARAUA



Erakusketak
Jolasak
Tailerrak
Informatika
Irrati saioa
Karaokea
Txontxongiloak



Ondo pasatu nahi baduzu... etorri!

Auzoetako eskolak ezagutu nahi badituzu, telefono hauetara deitu:

ZABALOTEGI
943 76 08 17

OSINTXU
943 76 45 43

MARTOKUA
943 76 08 63



IPINTZA INSTITUTUA
Boni Laskurain 19 Tel: 943 76 31 42
www.goieskola.net/ipintzabhi

MATRIKULAZIO EPEA OTSAILAREN 16TIK 27RA

SAN MARTIN ESKOLA
Boni Laskurain 25 Tel: 943 76 21 47
www.goieskola.net/sanmartinagirreeskola



IPINTZA INSTITUTUAN BILERA INFORMATIBOA

DBHko ikasleei (12-16 urte) eta gurasoei zuzenduta

Otsailaren 11an 18:30an

Bilera amaitu ondoren ikastetxea bisitatzera gonbidatuta zaudete



SAN MARTIN
BERGARAKO

IPINTZA
IKASTETXE

M. ALTUNA
PUBLIKOAK



ATREBENTZIAEZPADA/ Kirol txartelik egin dozu aurten? Bergarakua ala Debagoienekua?



LOREA ASKASIBAR
22 urte

Ez, ez dot txartelik atera, ez dot-eta kiroltik egiten; txikitan, bai, juaten nitzan igerilekuetara, baiña orain ja, ez naiz juaten; hortaz, ez dau merezi txartela ateratzia.



MARIA EUGENIA BASTERRA
36 urte

Ez, ez dot atera. Umiak ondiokan oso txikixak dira igerilekuetara juateko. Horregaitik ez dogu atera; aurrerago, ikusiko dogu, ia ze pasatzen dan igerilekuekin.



MARIASUN GALLASTEGI
62 urte

Lehen bai, ateratzen neban Bergarako txartela, baiña oin, ez; izan be, ez dakit igerixan. Lehen, ume txikixak neuzkanian, eurekin igerilekuetara juateko ateratzen neban.



IÑIGO ALKORTA
37 urte

Ez, ez Bergarakua eta ez bestia. Mutikotan, noizbait, atera neban, baiña, azkenaldixan ez. Txartela atera biharrin, nahixago dot juaten naizenian egunekua ordaindu eta kitto.



JON DIAZ
18 urte

Ez, aurten ez; lehen ateratzen neban, baiña, aurten igerilekurik ez dagonez, ez dot egin txartelik. Lagun batzuk badauke, batez be, gimnasia juateko, baiña nik ez.



VICTOR ISADO
18 urte

Ez, ez dot txartelik egin; lehen euki neban, batez be, igerilekuetara juateko, baiña, oin obretan diharduteenez, ez dot atera. Igerileku berririk egiten dabeanian egingo dot berriz.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXALOAK ERREPIDEA HONDATUTA Bergarako herrigunetik saihesbiderako irteeran, zubia baino lehen, zeharo hondatuta dago lurzorua. Horrexegatik kexatzera etorri zaigu herritar bat. Automobil ugari pasatzen da hortik, eta denbora luzez ei dago hondatuta lurzorua. Autobideak egitea ondo dagoela, baina herri barruko bideak konpontzea ere beharrezkoa dela adierazi digu. /AINTZANE IRIZAR

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /6

Urteagako bi etxe bota

Urteaga kaleko 19. eta 21. zenbakiei hondamendi-aitorpena eman diete eta aurki botako dituzte.

KIROLA /10

Ariznoako gimnastak

Ariznoa taldeko gimnastak banaka zein taldeka nagusitu ziren zapatuan Arrasaten.

KULTURA /12

'Apatxi' astero egubakoitzetik

Apatxi umeendako gehigarria astero argitaratuko da BERRIGARAren batera, datorren astetik.

ASTEKODATUA

80

LAN EUSKAL HERRIKO ITZULIKO LOGOTIPO LEHIAKETAN

Bergaran jokatu den Euskal Herriko Itzuliko lehen etaparako deitutako logotipo lehiaketan 80 lan jaso dituzte. Irabazleak datorren astean aditzera eman dituzte antolatzaileek.

BESTEKEKESANA

“Nekazaritza buruarekin egin behar da, etorkizunari begira. Ezin da gaur asko ekoiztu eta lur guztia suntsituta utzi. Ingurugiroak jartzen dituen erritmoen barruan nekazaritza egitea da inportantea”.
TOMAS LARRAÑAGA / Ekonekazaritza-ko presidentea
‘Berria’/04-01-28

“Konstantea izatea eta denbora ondo administratzen jakitea garrantzitsua da ikasketetan; izan ere, denerako astia egoten da, ez ikasteko bakarrik. Sekretua da ikasten duzuna gustuko izatea; benetan gustuko baldin baduzu, emaitzetan igarri egiten da”.
BORJA BARRUTIABENGOA / 2001-2002 Ikasturteko espediente akademiko onenaren sariduna
‘El Diario Vasco’/04-01-27

BERAIEKDIÑO/ Jose Angel Mikeo



Demokarraxia

Zer datorkigun ere ez dakigu lehenengo galbaikoa hartu arte eta gero, erdi lelotuta, ez dakigu nondik nora goazen ere. “Berrogei urte eta gero hau” mutikotan askotan entzun genuen esaldia izan zen, ustez diktadura bukatu eta lehenengo frustrazioak nabaritu zirenean ustezko demokrazia hartan. “Hogeita bost urte eta gero hau” esan dezakegu orain, ikusitakoak ikusita. “Hirurogeita bost urte eta gero hau” esango du guztia jarraian bizi izan duen batek.

Betiko txakurrak lepoko berriarekin, demokrazia hitza mugitzen den edonori zaunka botatzen diotelarik, izu konstituzionala zabaldu nahian dabilta, hala moduz diktaduraren hondakinekin eraikitako eskorta barruan ardi guztiak mantendu ezinka.

Ez dago eskorta zabalte-rik, berria egiterik edo, dena

bertan behera utzi eta, zelai berrian, larrean aske ibiltzerik. Txakurrak otso bihurtu dira. Euren jatorri basatia ez dute ahaztuta eta Patxi artzain zahar haren erakutsiei jarraiki, “dena ondo lotuta” utzi zuela agerian azaltzen da.

“Eta gu hemen, ardi izutu gisara, erdi leloturik, elkarren arteko lankidetzara ere taxutu ezinka”

“Vamos a contar mentiras” kantuak grazia egiten zigun gaztetan eta Pol-Poleko mendi irteeratan autobusean gogoz kantatu ere bai. Joxe Mari, Gorka eta Antonio, ustezko artzain ardi larruzko otsoak, Azoretako artzain bilkuran gezur galantaren gainean eraiki zuten otsoaren ehiza.

Orain gezurra ei da orduan oihukatutako “otsoa datorrela”, baina ez dio axola. “Artzain bilkura ardi hila” egi galanta. Eta gu hemen, ardi izutu gisara, erdi leloturik, elkarren arteko lankidetzara ere taxutu ezinka. CNiren begiradapean denok sospetxoso, Hurrengo galbaikoa hartu arte demokarraxika.

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Miren Almaraz

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkorobereizbar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 6
ZABALA. Barrenkalea 25..... 943 76 16 87

ZAPATUA, 7
GUALLAR. San Antonio 5..... 943 76 11 05

DOMEKA, 8
GUALLAR. San Antonio 5..... 943 76 11 05

ASTELEHENA, 9
ESTELLA. Matxiategi 5..... 943 76 19 63

MARTITZENA, 10
MOZOS. Iparragirre 2..... 943 76 12 15

EGUAZTENA, 11
CAMACHO. Oxirondo 4..... 943 76 11 74

EGUENA, 12
ZABALA. Barrenkalea 25..... 943 76 16 87

TELEFONOJAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDI
Anbulatorioa (txanda) 943 03 54 00
Bergarako Udaltzaingoa..... 943 77 91 06
Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
Ertzaintza 943 53 47 20
Osasun etxea 943 76 24 40
Asepeyo 943 76 16 43
Pakea 943 76 13 49
Angiozarko medikua 943 78 90 27
Antzuolako medikua 943 76 62 23
Odol emaleak 943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak..... 943 76 51 06

GARRAIOAK
Taxiak 943 76 19 50

UDALA
Bergarako Udaleteia 943 77 91 00
Antzuolako Udaleteia 943 76 62 46
Udal Artxiboa 943 77 91 32
Igerilekuak 943 76 20 51
Kultura etxea 943 77 91 58
Liburutegia 943 77 91 62
Kiroldegia 943 76 56 41
Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

BESTELAKOAK
Epaitegia 943 76 14 92
Erregistroa 943 76 13 15
Jardun 943 76 36 61
Idolaz 943 76 65 08
Erretiratuen etxea. Bergara..... 943 76 21 40
Antzuolako erretiratuen elk..... 943 76 62 71
Postetxea 943 76 26 85
Bedelkar 943 76 04 68
Akulu AEK 943 76 05 18
Udal Euskaltegia 943 76 44 53
Bergarako notariatza 943 76 10 73

MEZAK

San Pedro Domekak: 09:30, 12:30. Zapatuak eta lanegunak: 19:00.	Labegaraieta Domekak: 11:00.
Santa Marina Domekak: 11:00, 13:00. Zapatuak: 19:00.	San Lorentzo Zapatuak: 20:00.
Sierbak Lanegunak: 19:30	Angiozar Domekak: 11:30.
Osintxu Domekak: 12:30. Zapatuak: 19:00.	Moja Zaharrek Lanegunak: 09:00. Zapatuak: 11:00.
Elosu Domekak: 10:30.	Mizpirualde Lanegunak: 11:45. Zapatuak: 17:30.
Ubera Domekak: 10:30.	Antzuola Domekak: 09:00, 11:30. Zapatuak eta lanegunak: 19:30.
San Juan Domekak: 11:00.	Uzarraga Domekak: 10:00.
Elorregi Domekak: 10:30.	Elgeta Lanegunak: 09:00. Zapatuak: 19:30. Domekak: 12:00.

URTE-MEZAK
Santa Marina
Hileko bigarren domekan, 10:30ean eta 13:00etan.
San Pedro
Hileko hirugarren domekan, 09:30ean eta 12:30ean.

OHARRAK

1978AN JAIOTAKOAK
1978an jaiotakoan bergararren bazkaria martxoaren 13an Txarrantxa jatetxean. Izenematea (20 euro) Euskadiko Kutxan (3035 0009 1900 9007 0394), otsailaren 28ra arte.

ESKI IRTEERAK OTSAILEAN
Pol-Pol Mendizale Taldeak bi eski irteera egingo ditu otsailean: hilaren 13tik 15era Luz Ardidenera eta 27tik 29ra Baqueirara. Argibideak Pol-Poleko bulegoan, aste barruan 19:00etatik 20:30era, edo 943 76 48 51 telefono zenbakian.

UMORE ONA ELKARTEKO BATZARRA EGUENEAN
Umöre Onako bazkideek ezohiko batzar orokorra egingo dute martitzenean, hilaren 10ean, Zabalotegiko aretoan, 19:00etan.

ARCO FERIARA IRTEERA
Beart herriko artisten elkarteak Madrilera, Arco feriarra, joateko irteera antolatu du datorren astebururako, hilaren 13tik 15era. Gran Viako hotel baten egingo dute egonaldia, logela bikoitzetan, eta lagun bakoitzeko prezioa 150 eurokoa izango da. Argibideak eta izenematea 635 71 32 69 telefono zenbakian.

ODOL ATERATZEA
Bergarako Odol Emaleek odol ateratzea egingo dute hurrengo eguaztenean, otsailaren 11n, Seminarioan, 18:30ean hasita.

JARDUNENAGENDA

ASTE BUKAERAKO AGENDA
Txapligu taldekoak altxorren bila arituko dira bihar, zapatua, Arrizuriagan, 16:00etan. Domekan, berriz, Murinondoko San Blas jaletara irteera egingo dute, 10:00etan.

URBANOENORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta / Olabarretik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiurre, Martoko, San Antonio, Espolola (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugerza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN


Axen Garitano, hirugarren postuan Alto de Campon

Axen Garitano bergararrak hirugarren postua eskuratu zuen, 1993ko urtarrilaren azkenetan, Alto de Campon (Kantabria) jokatutako Espainiako Txakur Nordikoen Lasterketa Txapelketan. Ere berean, bere kategorian (sei txakurreko lerak) lehen postua lortu zuen Axenek.



BERTAKO BERBAK / Juan Martin Elexpuru

“Mototxa.”



Ille mototxa.
—Pelukerixan mototx rubixo bat ipini dotse.

ASTEKOPELIKULAK

‘TODO LO DEMAS’

ZUZENDARIA: WOODY ALLEN. AKTOREAK: WOODY ALLEN, JASON BIGGS, CHRISTINA RICCI.

HARIA. Aurrekoetan bezala Woody Allenek New York hirian girotu du bere azken lana, hainbat pertsonaiaren zalantza existentzialak eta arazo sentimentalak azalduz.

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 19:30ean eta 22:15ean; astelehenean, 19:30ean (ik.eguna).

PUNTUAZIOA: ●●●●●

‘LOONEY TUNES’

ZUZENDARIA: JOE DANTE. AKTOREAK: BRENDAN FRASER, JENNA ELFMAN, STEVE MARTIN.

HARIA. Warnes Brosseko mazzarki bizidunak eta benetako aktoreak uztartzen dituen filma. Bugs Bunny eta Lucas haserretu egingo dira eta Lucas ahatea langabezian geratuko da. DJ Drake-ren laguntza diamante baten bila hasiko da, gaizkile talde bati aurre egin beharko diotelarik.

TOKIA ETA ORDUA. Zapatuan eta domekan, 17:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

HAUGIROA!

MINIMOA Egubakoitza, 30	0 °C
MAXIMOA Martitza, 3	22 °C
ASTEKO EURIA (l/m ²)	9,2 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztana, 28	8 °C	2 °C	6,6 l/m ²
Eguena, 29	8 °C	1 °C	— l/m ²
Egubakoitza, 30	12 °C	0 °C	0,3 l/m ²
Zapatua, 31	15 °C	5 °C	2,3 l/m ²
Domeka, 1	20 °C	3 °C	— l/m ²
Astelehena, 2	20 °C	3 °C	— l/m ²
Martitza, 3	22 °C	2 °C	— l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak



Musika eta liburuak

bilintx

Ibargarai 12 - 20570 BERGARA Tel.: 943 76 40 50 Faxe: 943 76 23 52
bergara@megadenda.com http://www.megadenda.com

GIZARTEA/ Boni Laskurain kaleko egoitza berria handiagoa izango da eta garuneko elbarri gehiagorendako tokia egongo da

Aspace elkarteak helduendako eguneko zentro berria irekiko du irailean

IRATI AGIRREAZALDEGI

Aspacek, Garuneko Elbarritasun Elkarteak, eguneko zentro berri bat egokitze baimena eskatu zuen Udalean. Behin baimena lortuta, otsailan zehar hasiko dituzte lanak eta irailerako lokal berrian zerbitzuak eskaintzeko asmoa dute arduradunek.

Orain arte Ibaiondon izan du egoitza Aspacek. Baina 15 urteren ostean, leku faltak eta jendearen eskari igoerak eraginda, herrian bertan beste leku batera aldatzeko erabakia hartu dute. Gainera, baliteke orain dauden tokian beste proiekturen bat egiteko asmoa izatea, nahiz eta hori oraindik ziurra ez den.

Merkatu plazaren parean, Boni Laskurain kalean izango da kokaleku berria eta lokala egokitze lanetan aurki hasiko dira. Aspaceko arduradunen asmoa irailerako zentro berria abian jartzea da.

Guztira, 264 m² izango ditu egoitza berriak, egungo lokalak baino 100m² gehiago, eta bertan garuneko elbarritasuna duten helduendako eguneko zentroa egongo da. Lokal horretan erabilerak askotariko gela handi bat izango dute. Gaur egungo egoitza osoaren espazio bera izango du gela horrek. Horretaz gain, komun gehiago egongo dira, bost, hain zuzen ere, eta baita sukaldaria ere. Azkenik, administrazio kontuetarako bulego bat izango dute Boni Laskurain kaleko egoitzan. Bertan fisioterapia gela ere egongo da, eta oraingoa baino handiagoa izanik, baliabide gehiago izango dituzte langileek.

Egoitza berria jende gehiago hartzeko gertatuko dute; 32, hain



Eguneroko eginbeharretara ohitzeko hainbat lanetan jarduten dute gaixoek Aspaceko eguneko zentroan.

Eguneko zentro berriak Ibaiondon dagoenak baino 100 m² gehiago izango ditu

zuzen ere. Orain arte Aspaceko eguneko zentroan 26 lagunendako tokia egon da. Gainera, kontuan hartu behar da Bergarako zentroak Debarro osoko gaixoak hartzen dituela.

Babestutako lantegietara joaterik ez duten gaixoendako dira egoitza hauek

Garuneko elbarritasuna duten gaixoak, 18 urte dituztenean, adin txikikoen ikastetxeetatik Bergarara pasatzen dira; gaur egun zain daudenak berez sar daitezkeenak baino gehiago dira.

Gaixoek zumezko saskiak egiten dituzte eta baita ikuztegi zerbitzua eskaini ere

ZERBITZUAK

Eguneko zentro hauek babestutako tailer edo lantegietara joaterik ez duten garun elbarri bideratuta daude. Lortutako ikasketak sendotzeko eta heldutasu-

nera bideratzeko programak zein lanera moldatzekoak eta errehabilitaziozkoak garatzen dira bertan. Gaixoei ahalik eta bizitza normalena izaten laguntzen diete hainbat ekintzaren bidez. Besteak beste, gero salgai jartzen diren produktuak egiten dituzte.

Begarako Aspaceko eguneko zentroan zumezko saskiak egiten dituzte, zenbait enpresarendako eta baita inguruko artisauren azoketan saltzeko ere.

Bestalde, zentroko bertako arropak, beste ikastetxeren batekoak eta hainbat tabernatoko mantelak eta zapiak garbitu eta gertatu egiten dituzte.

Saskiekin eta ikuztegi zerbitzuekin ateratako dirua batu eta denen artean banatzen dute; beraz, hileroko soldata txiki bat jasotzen du bakoitzak.

Garuneko elbarritasuna duten egoera normaletara ohitzea da zentroaren helburuetako bat; beraz, saskigintza eta ikuztegi lanez gain, eguneroko beste hainbat jardunetan ere aritzen dira. Erosketak egiten dituzte, kontuak atera eta baita telefonoa hartu ere. Honetaz gain, zentroko begiraleekin eztabaida saioak izaten dituzte eta hauetan, gaixoen euren eragiten duten gaiak izaten dituzte hizpide. Izan ere, bai hizketan eta baita lanean ere eurak protagonista izatea da asmoa.

Gauzak euren kabuz egiteko gaitasuna lortu nahi bada ere, zailtasunak dituztenean, sei begirale izaten dira laguntzen. Zentro berrian gaixoak gehiago izango direnez, begirale kopuruak ere gora egingo du.

Irailerako egoitza berria gertu egongo dela uste dute arduradunek; hala ere, gaixo berriak ez dira denak batera sartuko.

Luis Alberdi da auzo alkate berria Osintxun

I.A.

Udal hauteskundearen ostean aukeratu zituzten herriko auzo gehienetan auzo alkateak, baina Osintxun erabakia geroago hartu dute. Irailean bozketa egin eta ordezkari bat aukeratu zuten arren, hark atzera egin zuen. Beraz, batzar batean aho batez adostu dute auzotarrek agintaldiak irauten duen datozen lau urteetan Luis Mari Alberdi izatea auzo alkatea.


Alkatearen ordezkari izango da Alberdi Osintxun. Izan ere, Victoriano Gallastegik onartu egin du auzotarren erabakia.

AUZOKO BEHARRAK

Alberdi auzoaren ordezkaria izango da behar den lekuetan, Udalaren aurrean auzoaren erabakiak azaldu eta defendatu beharko ditu eta baita Udalaren erabakiak auzora eraman ere.

Auzotik Udalera helaraziko dituen eskaera edo beharren artean zubiaren gaia dago. Aurreko agintalditik datorren arazoak eman du zeresanik Osintxun.

Bestalde, eskola zegoen lokala egokitu egin nahi dute, besteak beste, ludoteka ipintzeko eta baita antzerkiak, diapositiba emanaldiak edo antzerako ikuskizunak antolatzeko ere.



Luis Mari Alberdik agintaldiko datozen lau urteak emango ditu auzo alkate Osintxun.



Aurreko urteotan moduan, herritar ugari hurbildu zen martitzenean Murinondora San Blas eguna ospatzeko.

JAIK/ Asteburuan San Blas jaietako ospakizunek jarraituko dute Murinondon

San Blas egunean eta Santa Ageda bezperan ospakizunak

IRATI AGIRREAZALDEGI

San Blas eta Santa Ageda ospatu ditugu asteon herrian. Martitzenean opilak bedeinkatu zituzten askok eta eguaztenean, Santa Ageda bezperan, kopia kantuan atera zen talde bat baino gehiago martiriaren omenez. Asteburuan ere izango da ekitaldirik San Blas auzoan.

Giro onean ospatu zuten Murinondo auzoan San Blas jaiak martitzenean. San Blas opilak bedeinkatzeko egin zuten mezara eguraldia lagun zutela jende asko gerturatu zen. Murinondora joandako jende kopurua eta eguraldia kontuan izanik, ermitaren

kanpoaldean esan zuen meza Xabier Azkoitia Santa Marinako parrokoak. Ohikoa denez, San Blas opilak, ogia eta kandelak bedeinkatzeko aukera izan zuten gerturatuek. Ondoren, opilak ez ezik, salda eta txorizoa jateko aukera ere izan zuten Murinondoko elkartean.

San Blasen jaiak ez dira, ordea, martitzeneko ospakizunekin amaitu. Izan ere, gaur, egubakoitza, auzo afaria egingo dute eta ondoren, erromeria izango da Haritz eta Enaitz trikitilarien, goizaldera arte.

Mus txapelketa antolatu dute zapatu arratsalderako. Domekan, berriz, San Blas Txiki eguna izango da. Meza nagusia egongo da

11:00etan, eta mezaren ostean, salda eta txorizoa banatuko dute elkartean. Gero, Aranzadi ikastola-Moises Azpiazu dantza taldeak saioa eskainiko du. Herri kirolik ere ez da faltako: Zelai eta Miren Urkiola harri-jasotzaileek jardungo dute, batetik; bestetik, Ugaitzek eta Aratzek aizkoran. Jaiak amaitzeko umeendako kukainak egongo dira.

KANTUAN SANTA AGEDA BEZPERAN

Santa Ageda egunaren bezperan kopia kantari irteteko ohitura aspaldikoa da, eta batzuek oraindik eusten diote usadio horri. Aurten ere kalez kale kantuan atera ziren eguaztenean zenbait talde, eskoletako umeak tartean.

Hondamen-aitorpena eman diete Urteagako bi eraikini

I.A.

Urteaga kaleko bi eraikin egoera kaskarrean daudela eta, bertako jabeek Udalarik hondamen-aitorpena eskatu zioten etxebizitzendako. Eskaria onartu eta hainbat proiektu egin ostean, eraikinok eraisten hasiko dira, aurrez bizilagunak kanporatuta.

Urteaga kaleko 19 eta 21 zenbakidun eraikinen aurri edo hondamen eskaria egin zuten jabeek dokumentu tekniko bat aurkeztuta. Izan ere, bi etxebizitza bloke hauek egoera kaskarrean daude eta bertan ezin daitezke bizilagunak denbora luzez geratu.

Udaleko aparejadoreak eta hirigintzako teknikariak txostenak egin zituzten, eta, gaia Hirigintza batzordean aztertu ostean, hondamen-aitorpena ematea erabaki zuten.

AURKI BOTAKO DUTE

Behin aurri aitorpena eginda, etxebizitzak botatzeko eraispen proiektua aurkeztu behar dute jabeek Udalean, obra zuzendari-

tzaren izendapenarekin batera. Horretarako otsailaren 25era arteko epea dute, eta aurkeztu ezan Udalak exekuzio subsidiarioaren bidez egingo luke euren kanpura.

Txostena egun horretarako aurkeztu behar bada ere, Urteagako 19 eta 21 zenbakidun eraikinetan bizi direnei otsailaren 23ra arteko epea emango diete etxebizitzatik irteteko eta nahituzten gauzak ateratzeko. Izan ere, Udalak horretarako agindua emango die aurrez. Bizilagunetako batek etxetik atera nahi ez badu, etxetik botako dituzte bide administratibotik.

Bizilagunek ez ezik etxebizitzaren jabeek (han bizi ez diren) ere izango dute bertan gordetako gauzak erretiratzeko eskubidea, hauek ere otsailaren 23ra bitartean.

Beraz, otsailaren amaieran edo martxoaren hasieran botako dute eraikina, seguru aski. Hala ere, jabeek, etxea botatzeko lanak hasi aurretik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegiturako Departamentuaren baimena lortu beharko dute.



Urteaga kaleko 19 eta 21 zenbakidun eraikinak egoera kaskarrean daude.

Garabi zerbitzuaren hasiera, atzeratuta

IRATI AGIRREAZALDEGI

Urtarrilaren amaieran Udalak garabi zerbitzua martxan jarriko zuela aurreratu bagenuen ere, udaltzainak oraindik ez dira autoak erretiratzen hasiko.

Izan ere, garabiak leku okerrera lagatuko autoak jaso bezain laster gordailura eramango ditu, eta garabia bera gertu badago ere, tokia egokitzea falta da.

KALEAN LAGATAKO AUTOAK

Garai bateko Zerrajerako aparkalekua erabiliko du Udalak autoen gordailu modura, baina oraindik lanean dihardute bertan.

Besteak beste, argiztapen egoia eta behar bezalako ateak ipini behar dituzte, lurra altxatu eta berria jarri eta baita sarreran txabola txiki bat eraiki ere.

Behin gordailua gertu dagoeanean hasiko da garabia lanean. Hala ere, Udaletik jakinarazi dute lehen egunetan kaleetan utzitako autoak kenduko dituztela, gainontzekoendako tokia gera dadin, gutxi gorabehera 30 auto baitaude denboraldi batean toki berean aparkatuta. Hala ere, erretiratu aurretik jabeek jakinaraziko diete. Honela, udaltzainek garabia erabiltzen ikasi ahal izango dute.



Besteak beste, lurra konpondu eta argiztapen egoia ipiniko dute Zerrajerako aparkaleku zaharrean.

Ondartzako ordainlekuetan TAG zerbitzua ipiniko dute

I.A.

Bergarako da debagoiendarrak A-1 autobidera joateko duten ordainleku bakarra. Hori dela eta auto ilara luzeak sortzen dira Ondartzan. Ilaren arazoari irtenbidea emateko TAG zerbitzua ipiniko dute.

Datorren astetik, autoa geratzeko ordainketa automatikoa egiteko aukera ematen duen TAG zerbitzua jarriko dute A-1 autopistako Bergarako lau ordainlekuetan. Uste zutena baino ibilgailu gehiago dabil A-1 autobidean, eta ordainlekuko auto ilarak saihesteko hartu dute zerbitzua ipintzeko erabakia.

ESKARIAK GORA

Autobidea zabaldu zutenetik lehenengo hilabeteko datuak kontuan hartuta, eguneko batz besterik 5.347 ibilgailu igaro dira Ondartzako ordainlekutik, horietatik %9,2 astunak. Ibilgailu gehien gehienak 7:30etatik 8:30etara eta 17:30etatik 18:30etara pasatzen da, eta lan egunetan jai egunetan baino ia kopuru bikoitza.

TAG zerbitzua erabili dutenen kopurua, %15,15ekoa izan da




GOIENKARIA

Egunean 5.347 auto pasatzen dira batz besterik Ondartzako ordainlekutik.

lehen hilabete honetan. Hala ere, autobideko arduradunen esanetan gero eta gehiago dira TAG-a izatea eskatzen dutenak. Gai nontzekoek, txartel bidez edo dirutan ordaintzen dute maila bertsuan.

Bestalde, herritarrei jakinarazi nahi zaie kolektorearen obrak direla eta herri barrutik Maltzagara joateko bidea itxita egongo dela denboraldi batean. Beraz, herri kanpoko aldetik joan beharko da.



Seminarioko jateko ohiturez berbetan

Bergara, historia topagunian hitzaldi zikloaren baitan Santiago Piquero historialariak Bergarako Seminarioko jateko ohiturak eta horiek Euskal herrian izan dituzten aldaketek jardun zuen. Elikaduraren historiaz hitz egin zuen lehenengo, Bergarako Seminarioaz gero eta azkenik haragi buldaz.

Bergarako Udal artxiboak antolatutako ziklo horretako hurrengo saioa datorren martxoaren 2an izango da. Jose Angel Achonek autoen erret bidea izango du hizpide.

LABUR

Espainiarengandik erasoak jasan dituzten herritarrek egin zuten prentsaurrekoa

Aurreko asteko BERRIGARAN akats bat egin genuen. Hilaren 24an, zapatua, Bergara Aurrerak prentsaurrekoa egin zuela azaldu genizuen. Hori, baina, ez zen horrela izan. Espainiarengandik, era batera edo bestera, erasoak jasan dituzten arlo ezberdinetako herritarrek egin zuten prentsaurreko hori. Hantxe, martxoaren 14ko hauteskundeetara begira, hauteskundeok Espainiari ezetz esateko aprobetxatu behar ditugula azaldu zuten.

Pili Azkarateren olio erakusketa Nahikari tabernan ikusgai otsailaren 20ra arte

Pili Azkarate Garitano margolari bergararraren olio erakusketa inauguratuko dute gaur, egubakoitza, Masterrekako Nahikari tabernan, 19:30ean. Pili Azkarate artezalea izan da betidanik eta orain dela lau urte Rikardo Azkargortarekin pintura eskolak hartzen hasi zen.

Nahikariko erakusketan 18 olio jarri ditu ikusgai, paisaiak eta bodegoiak nagusiki. Kolore urdina da nagusi Azkarateren laneetan. Honako hau Azkaratek bakarka egiten duen lehenbiziko erakusketa da. Aurretik, hainbat erakusketa kolektibotan hartu du parte Garitanok. Nahikariko erakusketa otsailaren 20ra arte ikusgai egongo da, tabernako orduetan.

Nerabezareoaren gaineko hitzaldia emango du Xabier Tapiak Mariaren Lagundian

Mariaren Lagundiak hitzaldi sorta bat antolatu du eta lehenengoaren ostean, bigarren hitzordua astelehenerako, hilaren 9rako, ipini dute. Xabier Tapiak psikologoak nerabezareoaz jardungo du. Hitzaldia 18:00etarako deitu dute Mariaren Lagundia Ikastolan. Hurrengo saioa otsailaren 16an izango da eta Marisa Zubillaga psikologoak emango du, 18:00etan. Berak hizketarako aukeratu duen gaia umeak hazteko bidean aurkitzen dituen zailtasunak dira. Hitzaldiok entzutera edozein joan ahal izango da.

Aranzadi Ikastolak ate irekien ekitaldia egingo du zapatuan herritarrendako

Aranzadi Ikastolak ateak irekiko dizkie herritarrei bihar zapatua, hilak 7, arratsaldean. Gerturatzen direnek ikastetxea ikusteko eta bertako hezkuntza proiektua ezagutzeko aukera izango dute. Izan ere, Aranzadiren asmoa bere lana jende artean ezagutzera ematea da. Ikastetxetik bertatik jakinarazi digutenez, haurrekin joaten direnek hainbat aukera izango dituzte gurasoak bisitan diren bitartean umeak entretentituta egon daitezela.

Bergaran izatekoa zen ezker abertzalearen ekitaldia Donostiako Kurasaalean izango da

Ezker abertzaleak antolatuta Bergarako Udal pilotalekuan egitekoak ziren Bergarako proposamenaren aldeko ekitaldia. Hala ere, antolatzaileek jakinarazi digutenez, azkenean ez da Bergaran izango, Donostian baizik. Beraz, Gipuzkoako hiriburuko Kurasaal aretora aldatu dute ekitaldia. Bertan, Bergarako proposamena aurkeztu ostean egindako lanaren berri emango dute. Besteak beste, hainbat alderdirekin izandako elkarrizketetatik atera dituzten ondorioak plazaratzeko baliatuko dute ekitaldi hau. Bestalde, datozen martxoko hauteskunde orokorrekin begira ezker abertzaleak zein estrategia jarraituko duen ere emango dute jakitera.

ARDATZA

Brikolajea

Ateak eta zokaloak
Horma-armairuak
Sarrailak
Heldulekuak

Koadroak markoan ipini
Era guztietako moldurak
Apalak
Kaxoiak

Masterreka 4-behea. Bergara. 943 76 18 93

BEHEKO TABERNA

Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

OGIZUN

koop. elk.
okindegia




Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13



SANTA AGEDAKO KANTARI GAZTETXOAK

Eguraldia lagun, herriko ikastetxeetako ikasleak eta beste hainbat talde Santa Ageda eskean atera ziren eguaztenean, Santa Ageda bezperan. Goiz eta arratsaldez ibili ziren kantuan ikasle gaztetxoak, kalean gora kalean behera Santa Agedako kantua abestuz. Baserritar jantzita eta makila eskuan zutela, herriko kaleak alaitu zituzten. Esan bezala, primerako eguraldia izan zuten, gainera. San Martin eskolakoak (goiko argazkian), Mariaren Lagundia Ikastolakoak (goian eskuman) eta Aranzadi Ikastolakoak (behean) ondo baino hobeto aritu ziren. Kalean ziren herritarrek asko gozatu zuten txikien kantuekin.



ZUBI BERRIA SAN ANTONION

Orain dela pare bat aste zubi berria jarri zuten San Antonio auzoko etxe berrien ondoan. San Migel eta Urteaga kaleak lotzen ditu zubi horrek. Zubia egurrezkoa da eta han egin diren babestutako etxebizitzak bi blokeen artean dago. Zubia azpian Antzuola erreka pasatzen da. Zubi dotorea San Antonioko auzotarrendako...

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel. 943 76 15 09



POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

MINGAINARITIRAKA



Beatriz Hernandez

HERNANDEZ BODEGOIKOA

Aitonak, Jose Marik, zabaldu zuen Hernandez Bodegoia, Masterrekan. Aitak, Jesusek, negozioari eutsi zion eta orain dela ia 40 urte Irizarreko etxabeetan zabaldu zuen taberna. Beatriz txikitatik izan da Bodegoian, gurasoei laguntzen.

Laneko gauzarik onena? Eta txarra?

Okena, jendearekin tratua izatea. Txarra, gutxi batzuen edukazio falta zenbaitetan.

Zure lanerako beharrezko dohaina?

Pazientzia handia behar izaten da batzuetan...

Emakume ala gizon gehiago ibiltzen da tabernan?

Gizonak behar bada, baina emakume dezente ere etortzen da.

Txikiteoak behera egin du, ala?

Bai, txikiteroen koadrila gutxi batzuk geratzen dira.

Eta zer edaten du jendeak?

Txikiteroek, ardoa, Gazteagoek, garagardoa, ura, freskagarriak...

Lanerako, goiza ala arratsaldea?

Goiza, giro politagoa egoten da-eta.

Sukaldari ala zerbitzari lana nahiago?

Barrako lana gehiago gustatzen zait.

Lanean, musika ala irratia?

Irratia, musikarekin normalean.

Aisialdian zer egitea gustatzen zaizu?

Neguan eskiatzera joaten naiz ahal dudan guztietan, Jacara.

Liburu bat/Film bat/Musika talde bat edo kantari bat?

La divina comedia (Dante)/*Oficial y caballero*/Bruce Springsteen.

Parrandazalea zara? Parrandarako toki bat?

Bai, gustatzen zait. San Ferminetako giroa atsegin dut gehien.

Urtaro bat?

Udaberria, eguraldi ona orduan hasten da-eta.

Gustuko jantzi bat? Kolore bat?

Praka bakeroak. Gorria edo zuria.

Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Nire inguruan diren pertsonak ondo egoteari.

Besteengan gehien estimatzen duzuna?

Egiazaletasuna.

Loterian milioi bat euro irabaztekotan, zer?

Etxea ordaindu, auto berria erosi...

Bidaia bat, nora?

Orlandora, Disneyworldera joan nahi nuke.

EDU MENDIBIL

KANPOTARRAK BERGARAN

BELIT ARRIETA

28 URTE / NIKARAGUARRA / 1998AN ETORRI ZEN BERGARARA BIZI IZATERA

“Aita donostiarra daukat, eta Euskal Herria nire bigarren aberria dela esan daiteke”

EDU MENDIBIL

Aita donostiarra dauka Belitek. Aitak, Josek, erbestera jo zuen familiarekin batera Espainiako gerraren garaian, Mexikora lehenbizi eta Nikaraguara ondoren. Hain zuzen ere, Nikaraguan, Managua hiriburuan, jaiotakoa da Belit. Jose eta Norma gurasoek sei seme-alaba izan zituzten, eta laugarrena da Belit, anai-arrebetatik emakume bakarra. Nahuatl da Beliten ama-hizkuntza. Eta, horrez gainera, errusiarrez eta ingelesez ere hitz egiten du.

Biologia ikasketak egin zituen, Mexikon. Bost urte eman zituen Belitek Mexikoko hiriburuan eta ondoren Managuara bueltatu zen, hango laborategi batean lan egitera. Jaioterriari

“Nikaraguak 50 bat urteko atzerapena dauka, eta egoera politikoa ez da batere egonkorra”

buruz zera diosku: “Nikaraguak 50 bat urteko atzerapena dauka, eta egoera politikoa ez da batere egonkorra. Segurtasunik eza handia dago eta herritar askok alde egitea erabaki dute. Gehienak Ameriketako Estatu Batuetara joaten dira. Europara, berriz, nikaraguar gutxi etortzen da”. Nikaraguan bost milioi biztanle inguru daude, eta horietatik hiru milioi Managuan bizi dira: “Ez

du zerikusirik hemengo hiri handiekin, nagusiki nekazaritzatik bizi den hiria delako. Ez dago a penas industriarik Managuan”.

Gaur egun Houstonen, Ameriketako Estatu Batuetan, bizi dira Beliten gurasoak eta anaiak. Anaia bakarra geratu da Managuan. Belit Valentziara joan zen lanera, eta han ezagutu zuen Jesus Mari Matilla bergararra, 1997ko udan. Handik urtebetera ezkondu ziren, Bergaran. Hasieratik asko gustatu zitzaion gure herria: “Hemengo jauregiak, kultura, gastronomia, paisaia... atsegin ditut eta ez dut inolako arazorik izan bertako bizimodura moldatzeko. Jendeak ondo hartu nau eta nik ere ondo hartu dut jendea. Egia esateko, oso malgua naiz eta horrek asko errazten ditu gauzak beste herrialde batera joanez gero. Lagun asko egin ditut etorri naizenetik, eta Euskal Herria nire bigarren aberria dela esan daiteke”. Euskara ikasten ari da Udal Euskaltegian, eta Benito Lertxundiren kantak izugarri gustatzen zaizkiola esan digu.

GASTEIZEN LANEAN


Matz-Erreka, Copreci eta Fit Automocion enpresetan izan da lanean eta urte berriarekin lantokiz aldatu du. Gasteizko enpresa baten hasi da informatikari lanetan. Gustura ari da han, egunero autoan ibili beharra gehiegi gustatzen ez zaion arren.

Euskal Herrian negua luze egiten zaio Beliti: “Nikaraguako klimara ohituta, negua nahiko gogorra egiten zait. Ea eguraldi ona noiz datorren...”. Aste bukaeretan irteerak egitea gustatzen zaio: “Aste bukaeran Arantzazun eta Urkulun izan ginen. Domekan eguraldi zoragarria egin zuen paseatzeko eta ondoren bazkari on bat egin genuen lagunartean”.

Interneti esker, familiarekin etengabe dihardu harremanetan Belitek. Datorren urtean guztiak Houstonen biltzekoak direla esan digu.



GOIERRI AUTO GIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

ESKUBALOIA

Senior mailako mutilen taldeak Ereintza hartuko du zapatuan Labegaraietan

Aurretik, Bergara KEko senior mailako nesken eskubaloia taldeak Urdaibairen aurka jokatuko du kiroldegian, 16:30ean hasita

EDU MENDIBIL

Bergara KEko senior mailako mutilen eskubaloia taldeak Ereintza hartuko du bihar, zapatua, Labegaraietan, 18:15ean. Bergararrak sailkapeneko 11. tokian dira eta bihar ez dute partidu erraza izango, Ereintza bigarren tokian dago-eta.

Senior mailako mutilen taldeak bi partidu jokatu zituen aurreko aste bukaeran: zapatuan 41-28 galdu zuen Bilbon, Escolapios taldearen aurka eta domekan, Portugaleten, berdinketa lortu zuen (28-28). Azken sei puntuetatik, hiru lortu dituzte mahoneroek, orain dela bi aste Elgoibarri irabazi baitzioten etxean (32-31).

Gabonetan Portugaleten aurka jokatu beharreko partidua bertan behera geratu zenez, bi partidu jokatu beharrean egon ziren aurreko asteburuan. Edu Orgaz Bergarako taldeko entrenatzaileetako batek zera adierazi digu: "Zapatuko partidura bederatziz jokalarirekin bakarrik joan ginen, domekarako hainbat jokalaririk erreserbatu nahi genituen eta. Ez ditugu jokalaririk soberan, eta hobe zen domekarako indarrak gordetzea. Portugaleten partidu ona egin genuen eta epailengatik izan ez balitz, irabaziko genuen. Bi minutu eta erdi falta zirela bi goleko alde genuen,

Euskadiko Ligan 14 talde dira lehian eta 11. tokian dago Bergara, 10 punturekin

Bi partidu jokatu zituen Bergarak asteburuan, eta puntu bakarria lortu zuen, Portugaleten

baina hortik aurrera epaileek bizkaitarren alde egin zuten, modu argian, gainera: Mikel Larrañaga kanporatu egin zuten, arrazoirik gabe, berdinketa etorri zen, eta 30 segundoren faltan, Asier Muxika gola egitera zihoanean, falta argia egin zioten eta, penaltia adierazi beharrean, falta adierazi zuten. Horrela ez dago irabazterik. Azkenean, berdinketaren konformatu behar izan genuen".

Euskadiko Ligan 11. tokian dago Bergara, 10 punturekin. Gasteizko El Pilar taldeak 7 puntu ditu, Deustu-Loiolak 6 puntu eta



Senior mailako mutilen taldea 11. tokian dago Euskadiko Ligako sailkapenean.

azken tokian, berriz, Sestao dago, 5 punturekin. Azken hirurak mailaz jaitsiko dira eta baliteke laugarren batek ere jaisteko arriskua izatea. Beraz, jaitsierako postuak saihestea da bergararren helburu nagusia.

SENIOR MAILAKO NESKAK, ETXEAN

Bestalde, senior mailako nesken taldeak ere etxean jokatuko du bihar, zapatua. Bergarak Urdaibai taldearen aurka neurtuko ditu indarrak kiroldegian, 16:30ean hasita.

Aurreko asteburuan, kadete mailako bi taldeek irabazi egin zuten: neskek Arrateri irabazi zioten (19-16) eta mutilek, berriz, Zarautz mendean hartu zuten domeka eguerdian kiroldegian (25-22).

Ariznoa taldeko gimnastak taldeka zein banaka nagusitu ziren zapatuan Arrasaten

E.M.

Ariznoako gimnastak nagusi izan ziren zapatuan Arrasateko Uarkape pilotalekuan jokatutako Gipuzkoako Txapelketako bigarren fasean. Taldeka, alebin, infantil eta gazte mailetan irabazi zuen Ariznoak.

Alebin A mailan, tresnarik gabeko ariketan eta pilotakoan onenak izan genituen Ariznoako ordezkariak: Ainara Amoros, Ainhoa Martinez, Jurdana Pildain eta Lide eta Usoa Toledo. Banaka, berriz, Lide Toledok lehen postua lortu zuen, Usoa bigarren geratu zen, Jurdana Pildain hirugarren eta Ainara Amoros, zortzigarren. Tresnarik gabe aritu ziren banakako saioan.

Infantil A mailako taldeak ere lehen postua lortu zuen, sokarekin eta uztaiarekin. Irati Arteaga, Lorea Albeniz, Eider Carras-

co, Sarai Gallego eta Sarai Ruiz aritu ziren zapatuko saioan. Banakako ariketan, uztaiarekin, Arteaga nagusitu zen, Sarai Gallego eta Eider Carrascoren aurretik, hain zuten.

GAZTEAK, MAZOEKIN ETA UZTAIAREKIN

Azkenik, gazte mailan, mazoeekin eta uztaiarekin Ariznoak irabazi zuen. Uxue Arregi, Iraitz Gastiain, Maialen Legorburu, Virginia Odriozola, Maialen Toledo eta Izargi Vegak osatu zuten Ariznoako taldea. Mazoeekin, A mailan, Arregi bigarren eta Toledo laugarren sailkatu ziren eta B mailan, Odriozola izan zen lehena, Legorburu bigarrena, Gastiain laugarrena eta Vega zortzigarren sailkatu zen.

B mailako Gipuzkoako Txapelketako jardunaldia izango da datorren zapatuan, hilaren 14an, Uarkapen. Han ere Ariznoako hainbat gimnasta lehiatuko dira.



Argazkian, Arrasaten nagusitu ziren Ariznoa taldeko gimnastak.

KIROLA

Kirol txartelak berritzeko aukera udaletxean

Udal Kirol Zerbitzuak adituz eman duenez, kirol txartelak berritzeko epea zabalik dago udaletxean. Herriko zein Debagoieneko kirol instalazioak erabiltzeko aukera dago. Interesatuak Kirol Zerbitzura (943 77 91 67) jo dezakete.

ESKIA

Eski irteerak otsailean Pol-Polen eskutik

Pol-Polek bi eski irteera egingo ditu otsailean: hilaren 13tik 15era Luz Ardidenera eta 27tik 29ra Baqueirara. Martxoan, berriz, Formigalera joango dira, 12tik 14ra arteko aste bukaeran. Argibideak Pol-Poleko bulegoan edo 943 76 48 51 zenbakian.

Lehen erregional mailako futbol taldeak Sorluzeren aurka jokatu du bihar, zapatua, Ipintzan, 16:00etan

E.M.

Lehen erregional mailako futbol taldeak Sorluzeren bisita izango du bihar, zapatua, Ipintzan, 16:00etan. Bi taldeak sailkapeneko azken postuetatik ihes egiteko lehia dira. Horrez gain, beste lau partidu jokatu dira aste bukaeran Ipintzan.

Lehen erregional mailako taldeak Sorluzeren aurka jokatu du bihar, zapatua, Ipintzan, 16:00etan. Andoni Azkargortak zuzentzen duen taldeak Intxurreri irabazi zion joan zen zapatuan, 3-4. Bergararrak sailkapeneko 12. tokian daude, 19 puntu-ekin. Beraien atzetik bihar Ipintzan bisitari izango duten Sorluzeko taldea dago, 16 puntu-ekin. Sorluzek 0-1 galdu zuen azken jardunaldian Ordiziaren aurka. Sailkapeneko azken postuetatik ihes egiteko partidu erabakigarria izango da biharkoa talde bientzat.

Bihar, zapatua, beste bi partidu jokatu dira Ipintzan: goizean, lehen mailako kadete taldeak Pasajes hartuko du, 11:30ean. Eta arratsaldean, senior mailako nesken taldeak Ilintxaren aurka jokatu du, 18:00etan.



Bergara KEko infantil mailako taldea igoera fasea jokatzen ari da. Zapatuan Anaitasunaren aurka galdu zuen, 3-4.

IRIGO ZAITEGI

Domekan, berriz, futbol 8ko nesken taldeak Gasteiz taldearen aurka neurtuko ditu indarrak, 10:00etan; eta ondoren, lehen gazte mailan, Bergara eta Aretxabaleta aurrez aurre izango dira Ipintzan, 11:30ean.

INFANTIL MAILAKOAK, GALDU

Bestalde, infantil mailako Bergarako taldeak Anaitasunaren aurka galdu zuen zapatuan Ipintzan, 3-4. Gorka Larrañagaren mutilak ohorezko infantil mailara igotzeko lehia dira. Zapatuan

ez zuten partidu onik egin azkoi-tiarren aurka: Anaitasuna 0-3 aurreratu zen markagailuan lehen ordu laurdenean, eta, bigarren zatian etxekeok alde murriztea lortu zuten arren (2-3), Anaitasunak partidua erabakita

utzi zuen 2-4koa eginda. Azken minutuetan hirugarren gola egin zuen Bergarak. Asier Gonzalezek, Gabriel Guerrak eta Andoni Olabarriak egin zituzten golak Bergararen alde. Igoera fasean zortzi talde ari dira eta txapelduna bakarrik igoko da mailaz; bigarrenak promozioa jokatzeke aukera izango du. Bergarak hiru partidu jokatu ditu eta bakarria irabazi, Hondarribiaren aurka. Ordizia eta Anaitasunaren kontra galdu dute bergararrek. Oraingo aste bukaeran Donostiako Aldapetarrak taldeari bisita egingo dio Bergarak.

PREFERENTEKOAK, EZIN LIDERRAREKIN

Preferente mailako Bergara KEko futbol taldeak Zarautz liderraren bisita izan zuen zapatuan Agorrosinen. Bergararrak aurreratu ziren markagailuan, 4. minutuan Gorka San Vicentek egindako gol bikainari esker. Zarautzek berdinetaren gola egin zuen lehen zatia amaieran, epaileak zarautzarren aldeko penaltia adierazi ondoren. Bigarren zatian nahikoa egin zuen Bergarak bana-koari eusten, azken 20 minutuetan 10 jokalarirekin jokatu behar izan zuen-eta, epaileak Unai Arana kanporatu ondoren.

Udaberri Txapelketako eta Euskal Ligako partiduak gaur

E.M.

Udaberri Txapelketako hiru partidu eta Euskal Ligako bat jokatu dira gaur, egubakoitza, Udal Pilotalekuan, 19:10ean hasiko den jaialdian. Euskal Ligan aurrera egiteko zaila dauka Samaniego-Gutierrez senior mailako bikoteak.

Edu Samaniegok eta Igor Gutierrezek osatutako bikoteak lau partidu jokatu ditu Euskal Ligan eta bakarria irabazi du, Txaruta nafar taldeko bikotearen aurka, hain zuzen ere. Bikote bergararrak Gipuzkoako klub arteko txapelketako finala jokatu zuen abenduan, baina Euskal Ligan ez du maila onik azaldu orain arte. Gaur, esan bezala, Lazkaoko bikotearen aurka neurtuko dituzte indarrak Samaniegok eta Gutierrezek. Gaurko jaialdiko laugarren partiduak izango da senior mailakoa.

UDABERRI TXAPELKETAN

Esan bezala, Udaberri Txapelketan lehiatzen ari diren bikoteak arituko dira gaur Udal Pilotalekuan, 19:10ean hasita. Bigarren



ARTIBOIA

Argazkian, Gutierrez eta Samaniego, Euskal Ligan ari den senior mailako bikotea.

kadete mailako bikoteak Goierriren aurka jokatu du; ondoren, lehen gazte mailako Bergara KEko pilotariak Lagunak taldekoen aurka neurtuko dituzte indarrak; eta, azkenik, bigarren mailako senior bikoteak Lazkaoko bikotea izango du aurrean.

Kadete zein gazte mailako bikoteek bi partidu galdu eta bakarria irabazi dute orain arte eta senior mailakoak jokatutako hirurak galdu ditu. Gaur etxetik kanpo jokatu duen kadete mailakoak, berriz, bi partidu irabazi eta bakarria galdu du.

TXIRRINDULARITZA

Euskadiko Itzuliko lehen etaparako deitutako logotipo lehiaketan 80 lan jaso dituzte

Euskal Herriko Itzuliko lehen etapa antolatzen dabilen herri batzordeak deitutako logotipo lehiaketan 80 bat lan jaso dira. Epaiahaiaren erabakia datorren astean emango dute aditzera, eta irabazleak apirilaren 5ean Bergaran amaituko den lehen etapa antolatzailen auto batean jarraitzeko aukera izango du. Era berean, beste hainbat sari ere banatuko dituzte antolatzailerek.

TXIRRINDULARITZA

Lasterketetan parte hartzeko lizentziak berritzeko epea zabalik Lokatzan

Lokatza Ziklismo Eskola lasterketetan parte hartu ahal izateko federatu txartelak berritzen hasi da. Interesatuak eguenetan jo dezakete Lokatzak San Martin plazan duen bulegora, 20:00etatik aurrera. Argibideak 619 73 95 07 (Mikel Larrañaga) telefonoan.

LABEGARAIETAKO FUTBITO TXAPELKETA

ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN
09:30: Torpedo-Egurre. De Resaka

ZAPATUAN, KANPOAN
10:30: Teatekh-De Resaka. Torpedo

DOMEKAN, BARRUAN
09:30: K. Piperrak-Txipiron. Etengabe
10:30: Pirulotarrak-Etengabe. K. Piperrak

16:00: SDTNT-Dedo Pafarru. Fac
17:00: Pagomendi-Fac. Argandolas
18:00: PDS-Argandolas. Cosa Nostra
19:00: Cosa Nostra-Teatekh. Vervenir
20:00: Vervenir-Belengua. Teatekh

DOMEKAN, KANPOAN
11:30: Canalejas-Irubide. Toten
12:30: Tote Añiketan-Errotagana. Irubide

UMEAK/ Orain dela bi urte sortu zuen 'Apatxi' Udaleko Euskara Zerbitzuak, eta ordutik, hiru hilabetero argitaratu da, BERRIGARekin batera

'Apatxi' umeendako gehigarria asterokoa izango da datorren egubakoitzetik aurrera

AINTZANE IRIZAR

BERRIGARekin batera hiru hilabete behin argitaratzen zen aurreko urtera arte *Apatxi* umeendako gehigarria. Datorren egubakoitzetik aurrera, astero argitaratuko da. Denbora-pasak, hizkuntzaren gaineko arauak... Denetik jasoko dute atal horretan.

Udaleko Euskara Zerbitzuaren ekimenez sortu zen orain dela bi urte *Apatxi* umeendako gehigarria. 2002ko otsailaren 1ean, hain zuzen ere, argitaratu zuten gehigarriaren lehenengo zenbakia. Euskara Zerbitzuak eta Goienak egindako hitzarmenari esker, BERRIGARako gehigarri moduan jaio zen, eta ordutik hona, hiru hilabetero argitaratu da.

Orain, baina, beste urrats bat eman nahi izan dute, eta hiru hilabeterokoa izatetik, asterokoa izatera pasatuko da *Apatxi*. Datorren astean argitaratuko da aldi berri honetako lehen zenbakia.

Orain arte Euskara Zerbitzuak egin du gehigarriaren sortze lana; hemendik aurrera, berriz, Jardunek egingo du. Goienak, noski, zeregin horretan lagunduko dio.

'GEHIXAGO ETA HOBETO' PROGRAMA

Orain dela urte batzuk Udaleko Euskara Zerbitzuak sortutako *Gehixago eta Hobeto* programaren barruan kokatu behar dugu *Apa-*

Helburua da umeek gurasoekin batera irakurtzea eta jolastea, euskara maila hobetzeko

Orrialde bat izango du, koloreetan, eta BERRIGARako atal bat gehiago izango da aurrerantzean

txi. Bergaran ahozko euskara hobetzeko programa da hori.

Haur eta gaztetxoak dira programa horren jasotzaile nagusiak. Ikastetxeekin, gurasoekin eta gaztetxoekin lotutako beste hainbat alorretako eragileekin lan egiten dute Euskara Zerbitzuko arduradunek, *Gehixago eta Hobeto* programaren bitartez. Ikastetxeetan, esaterako, hainbat unitate didaktiko lantzen dituzte ikasleek.

Apatxi-ekin, euskara hobetze hori umeek gurasoekin batera lantzea da helburua, ipuinak elkarrekin irakurriz, denbora-pasak eginaz...



Edukiari dagokionez, *Apatxi*-k ez du aldaketa nabarmenik izango; hori bai, orrialde bakarra izango du hemendik aurrera.

ORRIALDE BAT, HAMAIIKA GAI

Lehen lau orrialde izaten zituen *Apatxi*-k. Aurrerantzean, baina, asterokoa izanik, orrialde bakarra izango du.

Orrialde horretan hainbat gai topatuko ditugu: umeendako denbora-pasak, sukaldaritzako errezetak, hizkuntzaren gaineko

arauak, txisteak, ipuinak... Edukia, azken baten, ez da askorik aldatuko. Kontua da, orrialde bakarra izanda, ezin izango dituztela astero-astero gai guztiak sartu. Itxurari dagokionez ere, lehen goan jarraituko du. Hori bai, asteroko *Apatxi* ez da gehigarri moduan aurkeztuko, orain arte

moduan; BERRIGARako atal gehiago izango da, baina, koloreetan.

Bestalde, lehiaketarekin jarraituko dute. Denbora-pasak egin, bidali eta hainbat sari irabazteko aukera izango dute meka-mutikoek. Hilean behin egingo dute lehiaketa hori.

Roberto Antonelloren organo kontzertua zapatuan San Pedron

E.M.

Organo Erromantikoaren V. Nazioarteko Zikloaren barruan, Roberto Antonello italiarraren emanaldia izango da bihar, zapatua, San Pedroko parrokiari, 20:00etan.

Antonello Paduan jaio zen 1967an eta gaur egun Trevison bizi da. Hain zuzen ere, bertako Madonna Dei Miracoli Basilikako organo jotzaile nagusia da. Antonello organo konposizioan diplomaduna da eta, besteak beste, Schnorr, Radulescu, Bogel eta Bovet irakasleekin batera egin ditu ikasketak. Nazioarteko hainbat sari lortu ditu; tartean, Lucinico Sariketari eta Veneziako Noale Lehiaketari.

Zapatuko emanaldian XIX. mendeko hainbat konpositoreren lanak eskainiko ditu San Pedroko parrokiari.

Etzi, domeka, Antonellok Loiolako Basilikan egingo du emanaldia, 20:00etan.

Bergarako, Azkoitiko eta Azpeitiko udalek antolatutako Organo Erromantikoaren aurtengo zikloa datorren aste bukaeran amaituko da: Daniel Oiarzabal organo jotzaileak Lausardi koruarekin batera kontzertua

eskainiko du, egubakoitzean, hilaren 13an, Loiolako Basilikan, 20:00etan, eta zapatuan, 17:00etan, Azkoitiko Santa Maria elizan. Bergaran, berriz, Oscar Cando eta Loreto Aramendi organo jotzaileen emanaldia izango da datorren zapatuan, otsailaren 14an, San Pedroko parrokiari, 20:00etan.

Zapatuko kontzertua

'Allegro' (6. sinfoniatik)	Ch. M. Widor
'Impromptu' (Fantasiatzko piezetatik)	L. Vierne
'2. sonataren Mop-50'	A. Guilmant
'Andantino sol minorren'	C. Franck
'Preludio y fuga, Alainen izenean'	M. Duruffé

KULTURAPILULAK

Amodiozko gutunen sari banaketa ekitaldia datorren zapatuan, hilaren 14an, Zabalotegian

Amodiozko Gutunen Berrigara Lehiaketaren sari banaketa ekitaldia datorren zapatuan, hilaren 14an, izango da, Zabalotegian aretoan, 19:00etan. Aurtengo deialdian 111 lagunek hartu dute parte eta epaimahaiak datorren astean emango ditu aditzera irabazleak. Bestalde, SMS bidezko mezuen (sakelako telefonoen bidezko bidalitakoak) lehiaketan 33 mezu jaso dira.

Misfits, Thee Tumbitas eta The Vietcongs taldeen kontzertua zapatuan Jam-en

Misfits, Thee Tumbitas eta The Vietcongs taldeen kontzertua izango da bihar, zapatua, Jam aretoan, 22:00etan. Sarreraren prezioa eurokoa da aurrez eskuratuz gero, eta 20 eurokoa egunean bertan. Jam-eko txarteldegian erosita.

Vicente Martin margolariaren erakusketa kultura etxean ikusgai domekara arte

Vicente Martin Calderon margolariaren erakusketa domekara arte ikusgai kultura etxeko aretoan, zapatuan eta domekan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Vicente Martin Talaver de la Reinakoa da, eta 32 akuarela jarri ditu kultura etxean.

E, TXO!

**TXISKRILABIKOEK,
EZTABAIDA SAIOA**

Jarduneko Txiskrilabi taldekoek eztabaida saioa izango dute bihar, zapatua. Zabalotegin elkartuko dira, Udal Euskaltegiaren egoitzan; 12 eta 14 urte bitartekoak, 16:00etatik 18:00etara, eta 14 eta 16 urte bitartekoak, berriz, 18:00etatik 20:00etara.

12 eta 16 urte bitarteko bazarra, oraindik baduzu Txiskrilabi taldeko kide izateko aukera; horretarako, zapatuan Zabalotegira jo dezakezu, edo Jardunera deitu, 943 76 08 19 telefono zenbakira.

**VITAL KUTXAK ANTOLATUTA,
ARGAZKI LEHIAKETA**

Vital Kutxa Fundazioak VII. Argazki Lehiaketa antolatu du. Gaia librea izango da, eta argazkiak koloreetan edo zuri-beltzean aurkeztu ahal izango dira. Egile bakoitzak lau argazki aurkeztu ahal izango ditu.

Maiatzaren 31ra arte dago lanak aurkezteko epea zabalik.

Informazio gehiago nahi izanez gero, honako telefono zenbakira dei dezakezue: 945 16 21 57.

**SAN PRUDENTZIO ARGAZKI
LEHIAKETA ABIAN DA**

Arabako Argazkigintza Elkarteak 35. San Prudentzio Argazki Lehiaketarako deialdia egin du. Gaia librea izango da eta egile bakoitzak, gehienez, lau lan aurkeztu ahal izango ditu.

Hain zuzen ere, martxoaren 19ra arte dago lanak aurkezteko aukera. Informazio gehiago lortzeko, berriz, bi aukera: 945 24 39 22 telefonora deituta edo sffa@infonegocio.com helbide elektronikora idatzita.

GUREGAIK/ ALDIZKARI ELEKTRONIKOA

'e-Gaztemira' aldizkaria abian jarri dute

AINTZANE IRIZAR

Gipuzkoako Foru Aldundiko Haur eta Gazteen Zerbitzuak eta Gazte Informazioko hainbat bulegok e-Gaztemira aldizkari elektronikoa martxan jarri dute, gazteendako informazioa emateko.

Aldundiko Haur eta Gazteen Zerbitzuaren aldizkari elektronikoa da e-Gaztemira. Gazteendako eta gazteria arloan dihardutenendako albisteak, deialdiak, artikulak eta informazioa emango ditu aldizkari horrek, bi astean behin, gutxienez.


Buletin horretan harpidetzeko, www.gipuzkoa.net webguneko Gazteria Zerbitzuaren atalean

eman behar dira datuak. Horrela, harpideek postontzi elektronikoan jasoko dituzte gazteekin lotutako berriak.

Bi eratako albisteak eta dokumentuak bidaliko dituzte e-Gaztemira-koek: batetik, Gipuzkoa osoko gazteendako interesekoak direnak, eta bestetik, norberaren herriari edo eskualdeari dagozkionak.

Lan eskaintzen, beken, aisialdiko jardueren, ikasketen eta gazteekin lotutako beste hainbat gairen gaineko informazioa bidaliko dute posta elektronikoz.

Bestalde, aipatzekoa da www.gipuzkoa.net webguneko Gazteria Zerbitzuaren orrian ere gazteendako albiste interesgarriak ematen dituztela.



Panelaz aparte, posta elektronikoz ere jaso dezakegu gazteok informazioa.

LOTSABARIK/ Nerea Madariaga

"Futboleko matxismoak amorratzen nau"

AINTZANE IRIZAR

Lasai ederrean etorri zitzaigun Nerea, azterketak bukatu berri. Motxila bizkarrean hartu, eta gurean egon ostean, futboleko entrenamendura abiatu zen; bere zaletasun handiena da futbola.

• **Alkate izango bazina, zer aldatuko zenuke?**

Gazteendako ekitaldi gehiago antolatuko nituzke; jaietan, esaterako, musika talde hobeak ekarriko nituzke.

• **Zure karpetan zer irudi edo pegatina daukazu?**

Euskal Herrian Euskaraz-en pegatina bat, *Berria*-ren beste bat

eta Bergarako gaztetxearen beste pegatina bat.

• **Telebistako saiorik gorrotagarriena? Eta gustukoena?**

Salsa Rosa ez zait batere gustatzen; *Basetxea*, berriz, asko gustatzen zitzaidan.

• **Pertsonaia higuigarriena? Eta gustukoena?**

Tamara ez zait gustatzen; Unax Ugalde, berriz, pertsonaia gustukoena da niretako.

• **Zerk amorratzen zaitu?**

Futbolean eta beste hainbat arlotan dagoen matxismoak.

• **Zer estimatzen duzu besteengan?**

Laguntzeko prest egotea.

• **Zeri ematen diozu lehentasuna bizitzan?**

Lagunei, futbolari eta gurasoei.

• **Zure bertute bat? Eta akats bat?**

Txantxa-zalea eta alaia naiz; akatsa, berriz, burugogorra naizela.

• **Zelan ligatzen duzue gazteok?**

Jaietan, batez ere.

• **Zure bikotekide ideala zela-koa izango litzateke?**

Jatorra, alaia eta txantxa-zalea.

• **Nora eta norekin egingo zenuke bidaia bat?**

Ameriketako Estatu Batuetara, lagun bategin.



• **Etorkizunerako amets bat?**

Athleticeko jokalaria profesionala izatea.



ADINA: 14 urte • **IKASKETAK:** DBH 3 • **ZALETASUNAK:** Futbola, bertsoak eta lagunekin irtetea • **LIBURU BAT:** 'El último trabajo del señor Luna', Cesar Mallorquirena • **FILM BAT:** 'Manolito Gafotas' • **MUSIKA TALDEA:** Betagarri • **KIROL TALDEA:** Reala

TIRABIRAKA/ izenaxxxxxxxxxxx



ZAHARRAK BERRI



San Joxepe abesbatzako kideek Simon Arrieta plazan abestu zuten eguerdi partean.



Pertxa elkartean egindako bazkarian 40 lagun inguru elkartu ziren Santa Ageda bezpera ospatzeko.

Erretiratuen abesbatzakoak, Santa Ageda eskean

E.M.

Azken urteotako ohitura-ri ertsiz, San Joxepe abesbatzako kideak kantuan atera ziren kalera eguztenez, Santa Ageda bezperan. Moja Zaharretatik abiatu ziren goizeko hamaikak aldera eta

ondoren Mizpirualde egoitzara ohiko bisita egin zuten. Handik Mariaren Lagundira joan ziren eta ondoren Bidekurutzetan, Barrenkaléan, Simon Arrietan eta Fraisko zurin eskaini zituzten Santa Agedako ohiko koplak. Ordu bata aldean amaitu zuten kalejira, San Martin plazan. Han,

GOITBko kameren aurrean ere abestu zuten San Joxepeko abesbatzako kideek.


Giroa lagun izan zuten erretiratuek kalerik kale kantuan ibiltzeko, udaberri garaiko eguraldi epela eta eguzkia izan zuten-eta. Guztira, 40 bat lagun ibili ziren kantuan, tartean Natalio

Juaristi beteranoa eta Miguel Sagastume *Urkiko magoa*. Sagastumek soinuarekin lagundu zituen bere lagunak.

PERTXAN BAZKARIA

Eguerdian, bazkaria egin zuten Pertxan elkartean. Berrogei bat lagun elkartu ziren Masterreka-

ko bazkarian eta Jose Mari Perez Pertxako sukaldariak, Migel Lazkanoren laguntzaz, primerako bazkaria prestatu zien: barazki menestra, legatza saltsan gulekin eta tarta izozkiarekin. Primeran bazkaldu ondoren, bazkaloste luzea izan zuten lagun artean, iluntzera arte.



Informatika ikastaroak

Datorren astetik aurrera honako ikastaroak eskainiko dituzte erretiratuen egoitzan: informatika hasiera ikastaroa (martitzenetan eta eguenetan, 11:00etatik 13:00etara), Internet (astelehenetan, 16:00etatik 18:00etara), edizioa eta argazkilaritza (martitzenetan, 16:00etatik 18:00etara) eta PowerPoint (eguenetan, 16:00etatik 18:00etara). Izenematea erretiratuen egoitzan bertan egin daiteke. Interesatuak 943 76 30 09 telefonora jo dezakete argibide eske.

LABUR

Ekologia eta tai-chi ikastaroak Nagusien Gelan

UNEDek eta San Joxepe elkarteak elkarrekin antolatutako Nagusien Gela egitasmoaren barruan, ekologia eta tai-chi ikastaroak izango dira otsailaren 26tik apirilaren 1era bitartean. Eskolak eguenetan izango dira, 17:00etatik 20:00etara. Interesatuak San Joxepe erretiratuen elkartean, Boni Laskurain kaleko egoitzan, egin dezakete izenematea. Plaza mugatuak dira. Argibideak 943 76 30 09 telefono zenbakian.



UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE

MUJIKA FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA



ETXE ETA FINANTZA AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telefono Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37



gizon & emakume

Barrenkalea 35
BERGARA

ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8
BERGARA
943 76 53 12

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Angiozarko plazan dagoen elkarte hau 1955. urtean sortu zuten.
Ze izen du?

BERGARAROSPETSUAK

Justo Garate (2)


KOLDO PEREIRA

Inlektual konprometituia izan genuen Garate, eta lan handia egin zuen gerra aurreko euskal kultura suspertzeko funtsezkoa izan zen Eusko Ikaskuntzan. 1932tik aurrera Eusko Ikaskuntzako batzorde iraunkorreko kide izan zen, Barandiaran, Kanpion, Seber Altube eta Telesforo Arantza direkin batera.

1931ko hauteskundeetan, Eusko Abertzale Ekintzako (EAE-ANV) hautagai izan zen errepublikarrek eta sozialistek sortutako taldean. 1936an, Agirre lehendakariaren aginduz, Bilboko Medikuntza Fakultatea sortu zuen beste hainbatekin batera. Fakultate hura Euskal Herriko Unibertsitatearen lehen oinarria izatea nahi zuten.

Argentinan, lehen Euskal Jaiak antolatu zituen Tandil hirian, 1940an, erbesterauztat dirua batzeko. 1950ean, Eusko Ikaskuntzako Ameriketako Institutua elkarte sortu zuen Buenos Airesen, euskal kulturaren sugarra ez itzaltzeko. Besteak beste, ohorezko euskaltzain izendatu zuten; 1987an, Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona saria irabazi zuen; eta EHUK *honoris causa* doktore izendatu zuen.

Eusko Ikaskuntzako Ameriketako Institutua elkarte sortu zuen Argentinan, 1950ean



ARTXIBOA

GALDEDEBALDE

- | | | |
|--|---|--|
| <p>1.
Bergarako zein auzotan ospatzen dute San Blas eguna?</p> <p>A/ Murinondon.
B/ Uberan.
C/ Elorregin.</p> | <p>2.
Zein da Bergara KEko infantil mailako futbol taldeko entrenatzailea?</p> <p>A/ Elias Garcia.
B/ Gorka Larrañaga.
C/ Juan Carlos Gomez de Segura.</p> | <p>3.
Nord da zapatuan San Pedron kontzertua eskainiko duen organo jotzaile italiarra?</p> <p>A/ Luciano Cacciola.
B/ Roberto Antonello.
C/ Antonello Brunamonti.</p> |
|--|---|--|



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

MARIA JESUS LIZARRALDErendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Maria Jesus!
Galderen erantzunak: Bonofotoa: Arostegi Etxea / Galde debalde: 1-C, 2-C, 3-A.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Starlux tomate frijitua

300 g.

0,35 €

58 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



PINTXOAK eta OGITARTEKOAK SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g Bergara
943 76 07 92

943 76 20 61
BERGARA

OILAGORRA TABERNA

Barrenkalea 21 BERGARA

CAMACHO

Drogeria Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

GURIA Taberna

Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34



BERGARA
Jone Ibarra
Utarrilaren 30an, 3 urte.
Urte askotarako!
Etxeoak.



ANTZUOLA
Gorka Martin
Utarrilaren 26an, 9 urte.
Urte askotarako!
Etxeoak.



BERGARA
Maddi Basterra
Otsailaren 8an, 5 urte.
Urte askotarako!
Etxeoak eta Olatz.



BERGARA
Ekaitz Irazola
Otsailaren 4an, 10 urte.
Urte askotarako!
Etxeoak.



BERGARA
Miren Carnicero
Otsailaren 6an, 6urte.
Urte askotarako!
Etxeoak.



BERGARA
Ekaitz Carnicero
Otsailaren 6an, 6urte.
Urte askotarako!
Etxeoak.



BERGARA
Mikel Mengual
Otsailaren 9an, 9 urte.
Urte askotarako!
Etxeoak.



BERGARA
Gabino Polanco
Otsailaren 5an.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Gorka Kortabarria
Otsailaren 7an, 6 urte.
Urte askotarako!
Etxeoak eta bereziki Ane.



BERGARA
Danel Murgiondo
Otsailaren 6an, 4 urte.
Urte askotarako!
Etxeoak eta lagunak.



BERGARA
Jone Murgiondo
Otsailaren 6an, 4 urte.
Urte askotarako!
Etxeoak eta lagunak.



BERGARA
June Alberdi
Otsailaren 9an, 4 urte.
Urte askotarako!
Etxeoak.



BERGARA
Xabier Alberdi
Otsailaren 19an, 2 urte.
Urte askotarako!
Etxeoak.



BERGARA
Asier Perez
Otsailaren 10an, 6urte.
Urte askotarako!
Etxeoak eta Mikel.



BERGARA
Andoni Gallategi
Otsailaren 7an, 8 urte.
Urte askotarako!
Etxeoak.



BERGARA
Jon Etxaniz
Otsailaren 11n, 2 urte.
Urte askotarako!
Etxeoak eta lagunak.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaiozu ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAn agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

ALBAITARIAK

ARATZ KLINIKA (Lazpiur Roman) Zurradero 6, behea. 943 76 70 67 / 607 48 71 19

ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak) 943 76 43 29 / 609 54 16 13

ETXEBERRIA Julio (Debagoieneko albitari ofiziala) 943 76 43 29 / 609 54 16 13

IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak) Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46

ANALISI KLINIKOAK

LABORRA Isabel Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

IRIGOIEN Victor Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

DENTISTAK

AGIRRE HORTZ KLINIKA Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23

ARAMBURU HORTZ KLINIKA Telesforo Aranzadi 1. 943 76 02 46

ASTIAZARAN SOLOZABAL Iparragirre 1, behea. 943 76 27 95

BERGARA HORTZ KLINIKA Bidekurutzeta 36, behea. 943 76 05 77

GOROSABEL J. Alberto Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88

CAVIGLIA Silvana S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54

IRIARTE Idoia Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65

SAINZ Ana Herriko plaza 4, ANTZUOLA. 943 78 71 69

TRIPALDI Enrike Fraiskozuri 1, 2. 943 76 70 76

DIETISTAK

ALBERDI Mireia Olanar etxea, Herriko plaza 3, ANTZUOLA. 943 76 60 45 / 646 43 34 58

ERREHABILITAZIO FISIKOA

LOPEZ DE MUNAIN Francisco J. Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74

FISIOTERAPEUTAK

ARZAK Miren (Jarrera-berreziketa orokorra). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

BASTERRETXE, Maria Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

HOMEOPATA

GANUZA Susana Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

MASAILARIAK

AZPEITIA Irupe Ibargarai 44, behea. 943 76 73 43

CASANELLAS Jabier Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78

ETXEBERRIA Ana Errekalde 6, behea. ANTZUOLA. 943 76 60 13

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

BENITO Isabel Bidekurutzeta 46, behea. 943 76 52 62

MEDIKUNTZA OROKORRA

OXIRONDO KONTSULTATEGIA Boni Laskurain 2, behea. 943 76 20 50

PODOLOGOAK

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA Ikerleku Zeharbidea z/g. 943 76 07 84

AZPIAZU Arantzazu Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

PSIKIATRA

GALLASTEGI Pablo San Martin Plaza 2, 1-ekz. 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80

URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13

ZUBILLAGA ZABALA Marisa (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

YOGA

SAMADHI YOGA Masterreka 13, behea. 943 76 11 38 / 639 235 753

BERGARAKO
OSASUN GIDA
OSASUNEZ BIZI IZATEKO.

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko otsailaren 6a / 188. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Txorikua etxea laster eraitsiko dute, Kalegoi eta Sagasti lotzeko

AINTZANE IRIZAR

Aurreko egubakoitzean sinatu zituzten eskriturak Udalak eta Txorikua etxeko jabeek; oraingo astean, berriz, etxea eraisteko proiektua onartzekoak ziren. Gauzak horrela, Udalaren asmoa da lehenbailehen etxea eraitsi eta Kalegoi eta Sagasti lotzea.

Buztinzuri kalea ez dute oraindik zabalduko. Izan ere, azkenaldian egin duen eguraldi txarrak hainbat arazo sortu dizkie. Dena dela, aurrera doaz lanok eta laster zabaltzea espero dute.

Txorikua etxea, berriz, laster hasiko dira eraisten. Dokumentu guztiak sinatu dituzte dagoneko Udalak eta jabeekideek, eta etxea eraisteko proiektua ere oraingo astean onartzekoak ziren. Behin Txorikua etxea eraisten dutenean, Sagasti auzunea eta Kalegoi lotuko dituen bidea zabalduko dute. Behin-behinekoa izango da, oraingoz, bide hori, baina zirkulazioari beste irtenbide bat eman ahal izango zaio.

Talleres Antzuola zegoen erakina ere eraisteko asmoa zegoen. Azkenean, baina, ez dute botako; hori bai, barrutik hustu eta guz-



ARTXIBOA

Txorikua, ezkerrean, eraitsi egingo dute; Talleres Antzuola, berriz, barrutik hustu eta guztiz eraberrituko dute.

tiz eraberrituko du enpresa erakitzaille batek.

ZIRKULAZIOAN ALDAKETA UGARI

Lan horiek guztiak amaitzen dituztenean, aldaketa ugari sortuko dira zirkulazioan. Kalegoi

eta Sagasti lotuko dituen errepidea egiten dutenean, Buztinzuri kalea noranzko bakarrekota izango da. Gainera, Udalaren asmoa da etorkizunean oinezkoendako bakarrik izatea herriko plaza eta Buztinzuri, asteburuetan. Auto-

mobilek Sagastitik ibili beharko dute. Horrela, oinezkoei eman nahi diete lehentasuna. Gainera, Buztinzuri noranzko bakarrekota izatearekin, zirkulazio arazo garrantzitsua konponduko dute, kale hori estua da-eta.



Gimnastak bikain Arrasaten

Herriko gimnastek emaitza bikainak lortu zituzten aurreko zapatuan Arrasaten. Gipuzkoako eskola arteko txapelketa jokatu zuten hantxe. Alebinetan, Lide Toledo irabazi zuen, Usua Toledo bigarren geratu zen eta Jurdana Pildain hirugarren. Gazte mailako A taldean, berriz, mazoekin, Uxue Arregi bigarren geratu zen eta Maialen Toledo laugarren. Eta B taldean, Maialen Legorburu bigarren tokian eta Iraitz Gastiain laugarrenean sailkatu ziren./A.I.

LABUR

Batzarra egingo du AGAk gaur, egubakoitza

Gaur, egubakoitza, 19:30ean egingo du batzar orokorra Antzuolako Gazte Asanbladak. Plazan jarri dute hitzordua. Orain dela gutxi Udaleko arduradunekin batzarra izan dute gazteek, eta horren berri emango dute. Baita presatu duten gaztetxearen proiektuaren berri ere.

San Blas eta Santa Ageda ospatuko dituzte asteburuan

Bihar, zapatua, San Blas jaiak ospatuko dituzte Basalde auzoan. 12:00etan, meza izango dute, eta ondoren, trikitilariak arituko dira. Etzi, domeka, berriz, Santa Ageda ospatuko dute Galartzan. 12:15ean, meza egingo dute; ondoren, salda eta txorizoa banatuko dituzte eta trikitilariak arituko dira.

Espainiari ezetz esateko, aurkezpen ekitaldia

Datorren asteko zapatuan, hilak 14, Espainiaren aldetik, era batera edo bestera, erasoak jasan behar izan dituzten hainbat herritarrek, jendaturreko agerraldia egingo dute. Hauteskudeen aurrean, Espainiari ezetz esatea proposatuko dute. Zurrategiko plazan izango da, 12:30ean.

Sinadurak batuko ditu erretiratuen elkarteak

Debagoieneko aurrez erretiratutako eta pentsionista elkartearen (APPALDE) aldearrikapenekin bat eginez, herriko erretiratuen elkarteak sinadurak batuko ditu. Bihar, zapatua, San Blas en egongo dira, goizez. Domekan, berriz, plazan eta Kalebarrenean jarriko dituzte mahaiak.

KIROLA

Udaberri saria jokatzeko dabilta Olalde elkarteko pilotariak

AINTZANE IRIZAR

Olalde elkarteko pilotariak buru-belarri sartuta daude Udaberri sarian. Eskuz binaka, nagusiak eta kadeteak dabilta; paletaz, berriz, nagusiak. Orain dela hiru aste ekin zioten txapelketa horri, eta oraingo astean herrian jokatu dituzte partiduak.

Kadete mailan, hiru pilotarik dihardute Udaberri saria jokatzeko; honako hauek, hain zuzen ere: Aitor Jauregik, Aitor Mendizabalek eta Asier Longaresek. Eskuz binaka diharduen bikotea, berriz, nagusien mailakoa, honako hauek osatzen dute: Josu

Agirrek eta Xabier Biterik. Azkenik, larruzko paletaz, nagusien mailako beste bikote bat ere bada bil txapelketa hori jokatzeko: Iker Manso eta Gotzon Zabalo, hain zuzen ere.

Aurreko asteburuan, hiru bikoteek irabazi egin zuten: kadeteek 1-22 irabazi zioten Urnieta-ri; Agirrek eta Biterik, berriz, 20-22 irabazi zioten Altxatarrak taldeko bikoteari. Paletaz, azkenik, Mansok eta Zabalok ere irabazi egin zuten, 28-35, Zumaia-koren aurka.

Infantilek, berriz, Neguko Saria jokatzeko dihardute, Eskoriatzan. Aurreko asteburuan, 18-4 galdu zuten Anaitasunaren aurka.

ZAPATUAN, PARTIDU MORDOA

Bihar, zapatua, 15:30etik aurrera, Debagoienean eskola kirolean dabilta neska-mutikoen partiduak jokatzeko dira. Benjamin mailako hiru partidu eta alebin mailako beste hiru jokatzeko dituzte. Ondoren, 18:00etatik aurrera, Udaberri Sariko partiduak jokatzeko dituzte.

BERRAONDO, BINAKAKO TXAPELKETA

Aritz Berraondok, berriz, bigarren mailako eskuz binakako txapelketa jokatzeko dihardute, Eulate bikotekide duela. Aurreko egubakoitzean, hilak 30, jokatu zuten lehendabiziko partidua eta 22-8 irabazi zioten Galartza V.a eta Zubietari.

ERREPIDEAK

Bergararako kaminoa zuloz beteta dago

AINTZANE IRIZAR

Orain dela aste batzuetatik hona, Bergara eta Antzuola arteko errepidea izugarri hondatu da. Zulo mordoak dago lurzoruan, eta herritar ugariaren keak jaso ditugu. Bestalde, Bonbulutik aurrera, errepideak itxita jarraitzen du, eta hilabete batzuk jarraituko du hala.

Aspaldian, nahiko arazo sortu dira Antzuola inguruko errepideetan. Batetik, Bonbuluko errepidea itxita dago, azaroa ezker. Gainera, orain dela aste batzuk Joxe Joan Gonzalez de Txabarri diputatu nagusiak Antzuolan bertan esan zuenez, hilabete batzue-

tan jarraituko du itxita errepide horrek.

Gauzak horrela, Antzuolatik Bergarara joateko, lau kilometro gehiago egin behar dira. Gainera, keak azaldu dituzten herritarren esanetan, hilabete batzuk lehenago ere denbora luzez egon zen itxita.

ORAIN, LURZORUA HONDATUTA

Orain, berriz, Bergara eta Antzuola arteko errepidea zuloz beteta dago. Duela aste batzuetatik hona, izugarri hondatu da lurzorua, eta han eta hemen aurkitzen ditugu zuloak. Herritar ugariaren keak jaso ditugu, errepidearen egoera eskasatik eta Bonbuluko errepidea itxita dagoelako.



Izperra saria eman dio Goizperrek Mari Beni Larreari

Goizper enpresako Euskara Koordinazio batzordeak Izperra saria eman dio Mari Beni Larreari; 30 urte daramatza Goizperren lanean eta urte horietan guztietan euskararen alde egindako lana eskertzeko eman diote saria. Haritz landare bat eman zioten, eta baita bertso bat kantatu ere. Amaia Etxaniz euskara teknikariak ere jaso zuen sari hori. Aurreko egubakoitzean Adunako sagardotegi baten egindako afarian eman zioten saria. Argazkian, Mari Beni saria jasotzen./A.I.

LABUR

KZgunearen ordutegia aldatu dute berriro eta egubakoitz arratsaldetan irekiko dute

Orain dela aste batzuk jakinarazi genizuen moduan, hemendik aurrera egubakoitzetan bakarrik zabalduko dute KZgunea. Hasiera baten, goizez bakarrik zabalduko erabaki zuten, baina, azkenean, arratsalde zabalduko dute, 16:00etatik 18:00etara, hain justu.

Familia erantzukizunaren gaineko programa baten dihardute hainbat gurasok

Euskal Herriko Unibertsitateak antolatuta, orain dela pare bat astetik, familiako erantzukizunaren gaineko programa baten parte hartzen dihardute hainbat gurasok. Martitzenero elkartzen dira Herri Ikastetxeko umeen hamabost bat guraso.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA
Otsailak 7
16:00: Antzuola-La Salle (Gazteak)

PILOTA
Otsailak 7 (Udaberri Saria)
18:00: Olalde-Elordi Herrig. (kad.)
Ondoren: Olalde-Eibar (eskuz nag.)
Ondoren: Olalde-Andazpe (pal. nag.)

EMAITZAK

FUTBOLA
Union Txiki 1 Antzuola 1 (2. erreg.)
Antzuola 1 Axular 2 (Gazteak)
Antzuola 1 Soraluze 0 (Kadeteak)
Zarautz 6 Antzuola 3 (Neskek)

PILOTA
Udaberri Saria
Urnieta-Olalde (eskuz kad.) 1-22
Altxatarrak-Olalde (eskuz nag.) 20-22
Zumaia-Olalde (palet. nag.) 28-35

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

ANTZUOLA
Apainketak eta isolamenduak
Pladurrezko dibisioak
Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Billegia: 943 78 70 40

Tomas Gezalaga
Apainketarako eta industriarako pinturak
Paper margotuak
Moketak eta tapizatuak
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR
taberna eta gozotegia
Buztinuzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Tomas Gezalaga
Zoruen kutxilatua eta bernizatzea
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2004ko otsailaren 6a / 172. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Espaloia kafe antzokia kudeatzeko lehiaketarako epea zabalik dago


IRATI AGIRREAZALDEGI

Udalak Espaloia kafe antzokia kudeatzeko lehiaketa jarri du abian. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean jasotako albistearen arabera, interesatuek proposamenak aurkezteko otsailaren 22ra arteko epea izango dute. Nahi duenak Udalean ditu eskuragarri baldintzak.

Espaloia kafe antzokia kudeatzeko asmoa azaltzen dutenek kultura proiektu bat aurkeztu beharko dute Udalean, instalazioei emango dieten erabilera eta programazioa zehaztuta. Honela, lehiaketa publikoan hartu ahal izango dute parte.

Aukeratutako kudeatzaileak bi diru ekarpen egin beharko ditu: 78 mila eurokoa lehena, kontratua sinatzerakoan eta lau urteren buruan itzuliko dena. Eta bigarrena, berriz, 84 mila eurokoa, antzokia kudeatzen hasi aurretik ordaintzekoa.

Beste baldintza batzuk ere zehaztu dituzte: Espaloiak zabalik egon beharko du gutxienez asteburuetan, jaiegunetan eta jai bezperetan. Bestalde, hilean behin ekitaldi kultural bat antolatuko dute kudeatzaileek. Gai-



Orain, egokitze lanetan dihardute Espaloian, eta aretoa nork kudeatu erabakitzeke egin da deialdia.

nera, urteko zenbait egunetan Udalari zein Herri Eskolari antzokia erabiltzeko aukera ematea ezinbestekoa izango da.

Baldintza guztiak zehatz jakin nahi dituenak Udalean eskura ditzake.

Kontratua hamar urtekoa izango da, eta urte horietan guztietan, hilero gutxienez 100 euro ordaindu beharko dizkio kudeatzaileak Udalari.

Interesatuek eskaintzak aurkezteko otsailaren 22ra arteko

epea izango dute. Behin egun horretan proposamen guztiak jasota, handik gutxira Udal ordezkariak aurkeztutako eskaintzak aztertuko dituzte, Espaloia kafe antzokiko kudeatzailea nor izango den erabakitzeko.



Kantari Santa Ageda bezperan

Eskolako neska-mutilak, irakasleak eta hainbat guraso lagun zituztela, Santa Agedaren omenez koplak kantuan irten ziren eguaztenean. Herriko kaleetan aurrez prestatutako koplak abestu zituzten eta zenbait ataritan baita herritarren eskupekoa jaso ere. Euren kantuetan esan zutenek, gurasoek garai batean egiten zuten moduan irten ziren kalera eta ohiturari eutsiko diotela ere aipatu zuten. Santa Ageda ez ezik San Blas eguna ere ospatu dute astean eskolan./I.A.

LABUR

Monitorea behar da aerobik eskolak abian jartzeko

Iaz, urte amaieran, aerobik zerbitzua bertan behera geratu zen eskolak emateko monitorerik ez zegoela eta. Udaleko Kirol Saileko arduradunen asmoa zerbitzua berriz abiaraztea da, eta horretarako ikasleak ere prest daude. Hala ere, oraindik aerobikeko monitoria falta da, beraz, interesatuei egin nahi diete kiroldugian eskolak emateko prest badaude udaletxera joateko. Bestalde, gogorarazi nahi dute gainontzeko kirol zerbitzuak abian daudela.

Goibekoren urteko batzar orokorra astelehenean

Goibeko Kultur Elkarteak urteko batzar orokorra deitu du datorren astelehenerako, otsailaren 9rako. Bilera 19:30ean izango da liburudugian eta bazkide guztiei bertara azaltzeko dei egin nahi diete elkartearen arduradunek. Goibeko elkarteak batzararako gai zerrenda luzea prestatu badu ere, astelehenean hizketarako gai nagusia Espaloia kafe antzokia izango da. Bide batez, batzar hau aprobetxatu nahi dute Goibekoko talde eragileak indartzeko.

Jaiak antolatzeko lehenengo bilera otsailaren 9an

Azoka Nagusiko jaiak uztailearen 1a eta 4a bitartean ospatuko dira aurten. Oraindik jai bezperak egiteko goiz delako iruditu arren, jadanik antolatuta lanetan hasteko gertu daude Udalean. Horretarako jaietako batzordea datorren otsailaren 9an, astelehenean, elkartzeko da, 21:00etan, udaletxean. Batzarrerara azaltzen diren herritarrek jaietarako euren proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte, ondoren bertaratutakoek eztabaiatzen dituzte.

UDALA

Aralar: "EAJ/EAko zinegotzi taldeak barkamena eskatu beharko digu saihebiderearen gainean esandakoengatik"

I.A.

Elgetan egin nahi duten saihebiderea dela eta eztabaida asko izan da, azkenaldian, Aralar alderdiaren eta EAJ/EA taldearen artean. Orain Aralarrek gai honen kontura esandakoengatik publikoki barkamena eskatzeko eskatu die EAJ/EAko ordezkariari.

"Saihebiderearen kontuari buruz berba egiteko batzarra behin eta berriz atzeratu dute"

Aralarrek konpromiso hori publiko egin zuen eta Elgetako EAJ/EA taldekoek gezurretan ari zirela esan zieten hainbat hedabidetan kaleratutako albiste eta gutunen bidez.

ELKARTZEKO SAIKERA

Urte hasieran arazoak oraindik bazirauela ikusita, Aralarrekoek gai honi buruzko urgentziakozko batzarra egiteko eskatu zuten, baina hilabete pasatu da eta alkateak behin eta berriz batzar hori atzeratu duela esan dute Aralarrekoek.

Batzarrik ezean, prentsa aurrean agertu eta azalpenak eman nahi izan dituzte. Besteak beste esan zuten Elgetako saihebiderearen gainean ez dutela gezurrik esan. "Argi eta garbi dago Gipuzkoako Batzar Nagusietako



Rebeka Ubera, Oxel Erostarbe eta Iban Retolaza Aralarreko zinegotziak prentsaurrekoa eman zuten udaletxean.

Elgetan egin nahi duten saihebidereak sekulako polemika piztu du Udala osatzen duten bi alderdien artean. Horren harira, Aralarrek prentsaurrekoa eskaini du asteon, tira-bira hauek argitzeko asmoz.

Saihebiderearen proiektuaren inguruan gertatutakoak pausoz pauso azaldu zituzten Aralarreko hiru zinegotziak udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

Oxel Erostarberen esanetan, Batzar Nagusietako aurrekontuak zirela eta 2003ko irailetik abendura bitartean negoziaketak egin zituzten EAJ/EAk eta Aralarrek. Hasieran aurrekontuetan saihebiderea agertu ez bazen ere, hainbat zuzenketaren ostean, abenduaren erdialdean saihebiderea egingo dela zioen konpromiso idatzia hartu zuten.

aurrekontua zela eta Aralarreko batzarkideak eta EAJ-EAk izandako negoziazioei esker, saihebiderearen proiektua egingo dela", esan zuten Oxel Erostarbe Aralarreko zinegotziak. Gaineratu zuten ez dutela ulertzen hori publikoki esateagatik zergatik sortu den horrelako polemika.

Bide batez, alkateari eta EAJ/EAko zinegotzi taldeari publikoki barkamena eskatzeko dei egin zieten. Izan ere, "komunikabideetan, gutun eta prentsa oharren bidez, behin baino gehiagotan esan dute Aralarretik saihebiderearen gainean esandakoa gezurra dela".

Beraz, saihebiderea egingo da eta gainera baliteke lanak aurreratzea. Honela, eztabaidarekin lehenbailehen amaitu nahi dute Aralarrekoek, eta herritarrei jakinarazi nahi diete ez dutela ezer gordetzeko ez honen gainean ezta beste gaietan ere, eta lanean jarraituko dutela.

San Blas eguneko jaia Arantzetan domekan

I.A.

San Blas eguna martitzenean izan bazen ere, domekan, hilaren 8an, egingo dute Arantzeta auzoan auzotarrek zein herritik hara joaten direnek santuaren omenezko ospakizuna.

Eguerdiko ordu batean meza izango da auzoaren amaieran dagoen San Blas ermitan.

Martitzen goizean parrokiaren egindako bedeinkapenera joaterik izan ez zutenek, domekan, San Blas opilak eta gozokiak

bedeinkatzeko aukera izango dute mezetan.

SALDA ETA TXORIZOA

Ospakizuna ez da mezarekin amaituko. Izan ere, txapligu hotsean Arantzetara hurreratzen direnendako, salda eta txorizoa gertu edukiko dute auzotarrek, baita umeendako gozokiak ere.

Antzina San Blas eguneko ospakizunetan iluntzean erromeria izaten bazen ere, orain ez da egiten. Aurten, trikitilaririk izango den ere zehazteke dago.



San Blas ermitan opilak eta gozokiak bedeinkatzeko meza izango da.

LABUR

Sagardotegira irteera gaztetxetik

Elgetako Gazte Asanbladak Hernaniko sagardotegi batera irteera antolatu du. Otsailaren 14an, 19:00etan Elgetatik irten eta buelta 03:00etan izango da. Izena emateko azken eguna otsailaren 9a, astelehena da, eta interesatuek gaztetxera edo Haizea tabernara joan beharko dute. Gutxienez 35 laguneko taldea osatu behar da sagardotegira joateko, eta joan nahi dutenek 35 euro ordaindu behar dute.

GOIENAN HERRIZ HERRI

Patxi Basauri Elgetako alkatearekin berbetan. Martitzenean, otsailaren 10ean, 20:30ean.



GOIENAN HERRIZ HERRI / Babeslea:

Ikusiko duzu!

ARRASATE-ARETXABAETA



ERRETRATUZAHARRA

BERGARA

Gazte mailako
futbol taldea
Bartzelonan

Bergara KEko gazte mailako futbol taldeak Bartzelonaren aurka jokatu zueneko argazkia duzue albokoa; 1964koa, hain zuzen ere. Bergarako gazteak Gipuzkoako txapeldun izan ziren, eta, horren ondorioz, Espainiako Txapelketan parte hartzeko aukera izan zuten.

Kantabriako Toluca taldea kanporatu ondoren, Bergarak Bartzelonaren aurka jokatu zuen. Agorrosinen 2-1 irabazi zuen Jabier Madinabeitiak zuzendutako taldeak, eta Bartzelonan 7-2 galdu zuten, Las Corts zelaian. Partiduaren aurretik Camp Nou-ra bisita egin zuten bergarrek. Ezkerretik eskumara:

Zutik: Cruz Jauregi, Manuel Arruabarrena, Tomas Astaburuaga, Andres Altzelai, Luis Mari Garitano (atzera begira dagoena), Ambrosio Arantzabal (atzerago), Julio Askasibar, Juan Antonio Igartza, Bixente Eguren, Pako Azkarate, Onesimo Manzano, Karlos Orueta eta Juanito Torre.

Pixka bat aurreratuago: Jesus Mari Lete, Iñaki Akizu, Pablo Gallastegi eta Luis Abajo.

Makurtuta: Julio San Vicente, Jabier Ezkurra, Juanito Juaristi, Guillermo Navarro, Hilario Arantzabal, Jesus Arruabarrena, Jesus Irizar Pardina, Agustin Arantzabal *Gaztelu*, Jabier Garate eta Jabier Lazkano.

Argazkia: Jesus Arruabarrena.



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero,
zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera.
Zain gaituzu!

SARRERA DOAN

Aste bukaerako
plana zabal-zabalik

Eguenetan,
20:30ean eta 22:30ean

Aurkezlea:
Amagoia Lasagabaster

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

**Ikusiko
duzu!**

SARRERA DOAN
Laguntzaileak:
Bilintx, Arteaga landetxea, Jade, Gili gili

Zozketa

Bi lagunendako afaria
Diskoak
Kontzertuak eta antzerkia

943 71 23 93
UTZI MEZUA!





Orain, baita Bergaran ere, Ibargarai 44an. (646 433 458)

- PISUA GALTZEKO DIETAK
- PISUA IRABAZTEKO DIETAK
- HEZIKETA NUTRIZIONALA
- HAURDUNALDIRAKO ELIKADURA
- KIROLARIENTZAKO DIETAK
- ERRELEBOKO LANGILEENTZAKO DIETAK
- OSASUN ARAZOETARAKO AHOLKULARITZA:
(KOLESTEROL, DIABETES,
HIPERTENTSIOA, AZIDO URIKOA)
- JARRAIPEN PERTSONALIZATUA
- ETXEZ-ETXEKO ZERBITZUA
- IKASTAROAK...

(...)

mireia alberdi

DIETISTA-NUTRIZIONISTA

(t) 943.76.60.45

(m) 646.43.34.58

mireialber@euskalnet.net

Olaran etxea, herriko plaza 3

ANTZUOLA



deskontuak

Mirari
JANTZIDENDA

% 50eraino

Martoko 34 Bergara 943 76 23 93

San Valentin eguna



Gizonezkoendako barruko arropa
Gallastegi konfekzioak
San Pedro 15



Emakumezkoendako lentzeria
Igarza mertzeria
Irala 5



Mutilendako barruko arropa
Gantxegi mertzeria
Telesforo Aranzadi 2



Emakumezkoendako eraztuna
Etxeberria bitxitegia
Bidekurutzeta 16



Lepokoa eta belarritakoak
Haraia zilarrezko bitxiak
Boni Laskurain 4

GREMIOEN GIDA

zure etxearen
osasun onerako



AGIRRE MARGOAK

Ortuibar 1, 3-C
943 76 53 82
Tailerra:
Alkabieta 7

- Orotariko pintaketa lanak

J.M. IZAGIRRE
Igeltseritza

Loidi baserria,
Angiozar
943 76 56 86

- Teilatu, fatxada, sukalde eta bainugelen berrikuntza

ARREGI AROZTEGIA



Urteaga 20
943 76 11 73
Erakusketa:
Bidekurutzeta 38
943 76 31 03

- Orotariko arotz lanak
- Sukaldeak
- PVC leihoak

BERGARA
Margoak

Amillaga 1, 1. pab.
162 p.k.
943 76 97 31
F 943 76 97 32
bergara.margoak@terra.es

- Orotariko pintaketa lanak
- K-21 agiria



UGARTE
ARROZTEGIA-ALTZARIAK

San Juan 1 A
943 76 54 91
F 943 76 08 04

- Orotariko arotz lanak
- Apainketa, soruak, leihoak, atek

